

ainbat Bilbao'ko argazki, ikusi dayen efiak bertoko txaidietan aspaldijon daguan «abandona». Bertatik ikusten dira ainbat txaide zulo andijakaz eta etxura gustija galduta aldi batetik ona. Au tamala da, Bilbao'ko uri bantentzat ixan be.

—Geure jauriari bafu on bat emon gura daukula-ta. Bere bafu onan zain ainbat egunian egon gara, baña azkenian azaldu dauku berak gauza anditzako eukan bafu urtena: kendu daukubere «zentzuria» eta emetik aufera azke izango dogu izpafingiz emoten norberan eretxijak. Neure ustez ez dabe egin besterik egin biar ebena baño. Orain beste gauza batzuk gura doguz. ¿Zeintzuk...? ¿Zeuk gura dozuzanak irakurle! Orain asma egizuz.

—«Constructora Naval» deritxan Sestao'ko olatik 40 langile jaurti dabez kanpora aste onetan. Langileok kanpora jaurtitzera lanik ezagafik ixan da. Laster geyago jaurtitzeko ustea dagolako zufu-mufuba zabaldu da.

—Barikuban aurkitu dabez Alameda Urkijo'ko edaritegi baten, ainbat mutil gaste «sapi-terdiko» joko debekatuan. Jauriariak ogeta best laurlekogaz zigortu dauz mutil bakotxa, eta 500'egaz edaritegi-jaubea.

—Larunbatean eruan ebezan Basurto'ko osatetxe edo ospitalera ama bat beste bere alabatxu bigaz, edena edo «benenuak» jota. Osatzaleak ikusijaz batera aurkitu eutsen euren gatza. «Pafetxikuekaz» galdu ziran, eta andik lastefera il zan alabatatik bat. Ama eta beste alabia txarto aurkituten dira. ¿Kontuz... kontuz... «Pefetxikuekaz»...!!

—Igaro dan ileko Bilbao'ko zenbatza edo «estadistikea» eskuratu dot. Bertatik ikusten da, igazi dan irala'n jayo ziranak 138 gixakume eta 158 emakume. Gustiz: 296.

Ikusten dogunetik emakumiak geñubaz duaz, Bilbao'n beintzat. ¿Neska zafak txarto ibili biar dozube!

—Uri onetara juan-etofi osteria egiten daben asko ikusten doguz egunotan; ainbaten artetik ikusi doguna Gabilondo'tar Julene, «Mañe», eta bere aiztea ixan dira.

—Zababide'ko pelota-tokijan iganero ospatuten diran jokaldijetara ikusgafizko notintza juaten da. Igarolko igandean jokaldi oneik ixan ziran: Poru'k irabazi eutsan Gaminitz'eri, amar «tantoren» aldiaz. Durango'k Lexona'ri, bederatziren aldiaz, eta Areatza'k Otxandijo'ri, bostan aldiaz. Oneik iru bikotxok bigafen malakuak dira. Lenengo malan jokatu eben Aulestia'k eta Markiña'k. Aulestiafak irabazi eben iru «tanturen» aldiaz, eskefak Markiña'ko jokolari bat eskuetatik zauritu zana. Bijar be ikusgafizko jokaldijak jokatu dira.

—Ostiko jolasketia be egon zan «San Mames»en, eta Bilbao'ko Athletik irabazi eutsan ezez-efez Sebila'ko «Betis»eri.

Bizka'ko Arenas'ek eta Barakaldo'k be, irabazi egin ebezan euran jokaldijak.

OGONOPE

Mañari.

Lugñak.
Artuak eta ira ondafak lja etxeratu dituez; ta, orain, gari erefen dirardue. Ofetan ekiteko, gaur, eguraldi ona daukoe.

Gexorik.
Usaola'tar Martine andera, egunontan, makal samar aurkitzen da. Zietz osatuko al da.

Juan Etoñiak.
—Befenetxea'tar Polentzi abade jauna, Lafabotzu'n iru egun igarota, igaroriko larunbatez etxeratu zan.

—Lengo egunian egon zan emen, «Korteta»ko Jon mutia.

—Mendizabál'dar Joseba ta Agife'tar Presen «Ur-saltu»ko senar emazte begikuak, Madriñen elditxu bat igarota, astartez efitatu ziran. Senar-emazte oneri, Madriñen, izeko aberatsa il yakoe; ori dala-ta, eurok mile ogerleko askoren jabe eginda etofi dira.

«Pedro Mari» ikusten.
Igazdez, Pedro Mari antzerkija ikusten juan da, Durango'n ixan gintzazan. Antzerki eder ori, ederto antzeztua ixan zan; eta atsegin ixan yakun. Durango'n, antzezlari gorenenguk dagoz gero egon be. Ofek Durangofok autsek yaukiezak...

Onetzaz «Sorkurde» idazle bizkofak idatziko dau.

Izkirimiri.
—Ara... zeure os suna bape mañe ba-doze, ezegafik be eztozu estutu biar. Etxeko telatua bera etofi afen be eztozu estutu biar; bestela, zure galdua...

—Eta telatuak azpijan artuta ilten banaz...?

—Orduan be eztozu estutu biar... —¿...?

MAÑARIKO

Eunak eta sofeko egñiak Zeara'tar Erupin

Tenderia 15 Bilbao

Gaminitz.

Eakontzak.
«Portumes»'ko geure adizkide zintzua dan Fulaondo'tar Pantzeske neskatil lireña, jatabetar batekin ezkondu yaku. Baña be geure adizkide onak diran Konde-Agife'tar Efikarta Miranda'tar Bifore'kin eta Mayor'tar Pantzeska, bermeotar neska polit batekin ezkondu dira. Anei (milla) zorrijon guztioi.

Aberkoyak.
Geure Batzoki-buruzagi batek esar daukunez, datofen lotzilaren lenengoz, Abefi-Ogasun Eguna ixango dala-ta itzaldi eder bat ixango dogu. Izlarija abertzale zintzo ta zintdua dan Orueta'tar Endika jauna izango da. Ez aitzu, ba, gaminitzafok, eta lotzilaren lenengo igandez, danok, gixon bai lez, erdu bediz izlari trebe oni entzuten.

Ixialdi luze bat igaro ondoren, agertu yaku «Isi» «Euzkadi»ko geure erdeldun izparkari trebia be. Bere azkenengo idazlan bijak pozez beterik irakufi doguz. Ekin «Isi» mañia, ekin. Euzkera-ikastaroak lortu arte. Eta Euzko Edesti tzazko azalpenak, ¿noizko geld izen dira?

LOLTARPI

Eleiz - Jantzi ta urregintza A. Rui-Wamba

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238
BILBAO

Urkiola.

Eguraldija.
Oraindikokuan Urkiola-gania ez-tosku zuritu, baña bai aldemen mendi tontofak; alan izanik be, gure Martin artzayak eztauko ardurarik.

Eskontzak.
Aspaldi onetan bada Urkiola'n ezkontzia ugari; badira egunak lau ta bost egiten diranak. ¿Ta bertakorik

ezkontuten da? Entzun dodanez bateron bat atarako ustez dago; ondo litzake Urkiolafok be mogidutia, ta uste dot zeozer ixango dala, igan afatsaldetan «pasiautia» ugari agertzen Otxandijo aldetik-eta.

Ariñeketia.
Entzun dodanez ariñeketaren baten gertakixunak dagoz; Otxandijotafak eta Izurtzafak, baña euren artian Urkiotafen bat be; au azkenau elitzake txafena izan, ortarako sekulekua.

Juan-etofi.
Igaro zan astian emen aurkitu dogu beren etxekuen artian astia igaroten, Ibarzabal'tar Markelin apaiz jauna, Markiña-Etxebafu'ko txauburu-laguna.

Usurbil'era juan zan Sarasua'tar Meliton apaiz jauna.

Soraluze (Plazenzia)'ra Atxotegi, Jon apaiz jauna.

Morga'tik beren sendijagaz egon-aldi bat egin ondoren, etofi da Abaunza'tar Zezilia beren alabatxu Begoñita'kin.

Donostia'ra juan da Agife'tar Jon beren alaba Andere'gaz.

ITURIOZ

Eleizkixunetarako Argizagizok kundelak

Eleizak aginduta daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTABIL, zigufasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.

Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezker, argizagi asko auzetuten da.

QUINTIN ROIZ DE GAUNA'REN SEMIA
GAZTEIZ.-ARABA (VITORIA)

Muxika.

Zuzendari, idazle ta irakurle gustijok azketsi neure igazi zan txandan idatzi enebalako, ezta neure efua izan-eta.

Ugutzak.
Elejada'tar Maxima eta bere emazte Tomase'k zeintxu bategaz geituta ikusi dabe euren sendija eta jayopafitxuari Peli izen polita ezafi dautsoe. Baña gure lagunak diran Lauzirika'tar Txil'pristo eta Odriozola'tar Nekane senar-emazte abertzaliak be seintxu bategaz geituta ikusi dabe euree sendija eta jayopafitxuari ugutzakeran Jon Mirena izen polita ezafi

Marin eta Goikolea

(Ien Apellaniz y C.º)

Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak
Castilla, 31 VITORIA

dautsoe. Aita-ama besoetakoak Urto-sagasti'tar Jon Mirena eta Izlar izan ziran.

Zorionak guztioi.
Erlotza.
Foruria'tar Anastasi Ikurton Deunak eta Aita Deunaren Onespena artuta lengo astian il zan. (G. B.) Atsekabian lagun gayakoz sendi gustiari eta zuk, irakurle, otoi bat bere gogo alde.

Eskontzak.
Igazi zan astian efi onetako Bingen deunaren aufian ezkondu zan Atxikalende'tar Miren Lejarzegi'tar Nikolagaz. Ezkon-lagunak Atxikalende'tar Jon eta Lejarzegi'tar Sekunde izan ziran. Ezkon-onespena Zalo-Etxebafia'tar Kepa'k emon eutsen. Zorionak eta urte askotarako ixan daitezala.

Baita Urkiola'ko Andoni deunaren aufian ezkondu ziran Enbelta'tar Balandin Ealo'tar Kalare'gaz. Abertzale zintzoak dira bitzuok. Eten gabeko zorionak opa dizkitzuet artu bizibide bafijan eta oñartia lez abefijaren alde lan egiten jafaituko al-dozeu.

Ezkon-deyak.
Aspalditxuan ezkon-deyak ugari dabiz gure ertxadonan. Batzuk amaitu orduko beste batzuk asi dira. Oraingoan onen aldija da: Jauregi'tar Pantzeske Ibañuri'ko Bafuetabeña'tar Sekunda'gaz. Zorionak ezkongai bitzuai.

MENDI AZPIKOAK

Euzko - Idaztitegia

Ingi ta idazkai gustiak

EKIN asteroko onen artu-emonak ementxe egin zeinkez

BILBAO

Ribera, 4'g. 18987 Ufutz.

Zabaldu E K I N

(20)

ALDEZKETA - GAYAK

(APOLOGETIKA - GAYAK)

KISTARA NAZ ¿ZER DALA-TA?

NABARIZTARA'k atondua.

Jafakuna

Irugafen argibidia. Gure Jaunak irasiriko Doibatza bakaña, deuna, orokaña (katolikua) ta beldukaña (apostoluena) biar da ixan. Lau ezaubide edo zeingijok egizko Doibatzarenak doguz, Nikea'ko Batzar gurenak irakatsi ebanez; eta Erroma'kuari bete-betian dagokijoz.

Bakaña. ¿Zertaz da bakaña Kisto'ren Doibatza? Ziñeskintzaz, guñtaz, jaurbide edo aginpidez: Kisto'ren irakaskixunai dagokijen ziñeskintza bakaña; Kisto'k irakatsiriko jaupa ta ikuñtonai dagokijen guñtza bakaña; Kisto'k ipiñiriko artzain-buru ta artzañai dagokijen jaurbide bakaña.

Olanxe da bakaña Erroma'ko Doibatza: Doipurubaren menpeko kistañ gustijak, ludi osuan zabaldua

egonaren, ziñeskintz berbera abesten dabe; otoiñtz, jaupa ta ikuñton berberak darabilez; Erroma'ko Gotzain gurena buru-yakoen gotzañak dabez agintari.

Ziñeskairen bat ausi edo ukatu egifen dauna ziñauslia da; Doipurubaren menpe eztagona, targolarija: oñeik Doibatz-bañu eztagoz, lekore baño.

Deuna. ¿Deuna ete-da Kisto'ren Doibatza? Bai, ixan biar, gixonak deunduteko irasi eban-eta. Deuna, donetasun-ifuñi bixija dan Jaungoikua bera irasle dau-lako; deuna, irakaskintza, ikuñton eta lagi egokijak bide, gixonak onbidera ta donetasun bixitzara daruazalako; deuna, edozenbat deun guren eta alazgile (mirarigile) soñtzen dauzalako.

Olanxe da deuna Erroma'ko Doibatza; Josu Kisto Urtzi Semiak irasi eban; guzurari ta obenai gogoi-egin eta, ikuñtonak bide, edonun onomenak biztu ta goi-bixitza erazoten dau; aldi-oro soñtu dauzan ziñopa edo martiri ta enparau deunak unei (milloi) askuak dira, ta eurok egindako alatz eta egintza arigarijak, bañiz, zenbatu ezin-ala.

Orokaña. ¿Orokaña ete-da Kisto'ren Doibatza? Bai, orokaña edo aldi ta toki oñetakua ixan biar, aldi ta toki gustijetako gixonak jaregin eta gaizkatzeko irasi eban-eta.

Olanxe da orokaña Erroma'ko Doibatza: emeretzi mende edo eunkijeton gotor iraun dau; antxiñatik dago ludi osuan zabaldua; beste edozein doibatzixunek baño doibazkide edo kistañ geyago dauz. Gaur irureun unei (milloi) ta geyago gara orokar edo katolikuk.

Beldukaña. ¿Zegafik da beldukaña Kisto'ren Doibatza? Jatoñija, irakaskintza ta aginpidia beldu edo apostoluakandik dauzalako: Kepa ta enparau belduben bidez irasi bai'eban Josu-Kisto'k.

Olanxe da beldukaña Erroma'ko Doibatza: beldubak ixan dauz lenengo gotzain eta buru; arein ziñeskintza ta irakaskintza jabon eta aldeztu dauz beti; Kepa deunaren ondorenguk ixan dauz Doipuru, ta beldubenak gotzain.

Erroma'kua da, beraz, benetako kistar-uskuñtza.

OSTEZKITZAK. 1.ª Kepa deunak enparau beldubak baño aginpide geyagorik ez edo ebala arñu, beldu gustijai esan bai eutsen gure Jaunak: «Añak bidaldu naun leiz bidaltzen zaudaze neuk be». (Jo. 20, 21); Zuaze, ta gixenda gustijai irakatsi». (Ma. 28, 19).

Er. Beldu gustijai ludi osorako aginpidia emon eutsenafen, Kepa bakañik egin eban ardi ta bildotzen buru; oñezker, belduben buru be bai.

2.ª Gerkañ doibatzak Josu-Kisto'gandiko irakasmena daula, gotzain targolarijak be belduben ondorenguk dirala-ta.

Er. Gotzain targolarijak, Doipurubaren mende eztagozan ezker, ezitira lagizkuak: eztabe, ba, egizko irakasmen eta aginpidirik.

(Uñengan geyago)